



DEIALDIA, ERAIKINAK BIRGAITZEKO, IRISGARRITASUNERAKO, ERAGINKORTASUN ENERGETIKORAKO ETA HIRIA BERRONERATZEKO LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUENA

2026. URTEA

Zizur Nagusiko eraikinak birgaitzeko, irisgarritasunerako, eraginkortasun energetikorako eta hiria berroneratzeko laguntzak emateko Zizur Nagusiko Udalaren Ordenantzarekin bat etorritz onartu da deialdi hau. Zizur Nagusiko Udalbatzak behin betiko onartu zuen 2022ko urtarrilaren 27an. Ordenantza hau 2022ko otsailaren 17an argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean, 35. zenbakian.

1. Administrazio deitzailea: ZIZUR NAGUSIKO UDALA
2. Organo emailea: Alkatetza
3. Kudeaketa arloa: Hirigintza arloa
4. Instrukzioa: Hirigintza Zerbitzuetako burua
5. Prozedura: Banakako ebaluazioa
6. Izapidetzea: Arrunta

OINARRI ARAUTZAIULEAK

1. Oinarria. DEIALDIAREN XEDEA

Deialdiaren helburua da eraikinak birgaitzeko eta hiria berroneratzeko gastuak diruz laguntzea.

Dirulaguntza honen onura publikoa udal-mugar-tean kokatutako eraikinak birgaitzen laguntzea da.

2. Oinarria. XEDEA

Deialdi honen helburua da bizitegi-eraikinen eta haien instalazioen energia-efizientzia aurrezteko eta hobetzeko jarduketak dinamizatzea. Jarduera horiek irisgarritasuna hobetzeko obretara bidera daitezke, bai eraikinetan, bai ingurunean, arkitektura eta hirigintza jasangarria eta ingurumena errespetatzen duena babestuz.

Beste helburuetako bat da horrelako obrak egin nahi dituzten jabekideen erkidegoetan erabakiak hartzea erraztea, egoera ekonomiko ahulenean dauden bizilagunek ordaindu beharreko kuotaren zati handi bat finantzatzuz.

3. Oinarria. DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN GASTUEN BALDINTZAK, KONTZEPTUAK ETA EPEAK

3.1.- Baldintzak

Dirulaguntza hau honela zehazten da:





- a) Ordenantzan "Laguntza Orokorrak" esaten zaienetan, pertsona edo erakunde onuradunek hiria birgaitzeko edo berroneratzeko obren gastuak ordaintzeko erabiliko duten laguntza ekonomikoa da.
- b) Ordenantzan "Zaurgarritasun egoeran daudenentzako aparteko laguntzak" deiturikoetan, laguntza eskatzen duen jabeari edo gozamedunari esleitutako obraren kostua murrizteko erabiliko da osorik, eta jarduera sustatzen duen jabeen erkidegoak jasoko du dirulaguntza.

3.2.- Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

- a) "Laguntza Orokorrak" deiturikoetan:

1.- Nafarroako Gobernuak babestutako birgaitzearen behin-behineko kalifikazioa duten jarduketan kasuan, espedientearen aurrekontu babesgarria izanen da laguntzak kalkulatzeko oinarria.

2.- Gainerako kasuetan:

- Kontrataren aurrekontua: obra gauzatzeko aurrekontua kenduko da obra babestu izan ezin diren partidetatik, gehi gastu orokorrak eta mozkin industriala, biak batera gehienez ere obra gauzatzeko aurrekontuaren %15 izateraino.
- Profesionalen ordainsariak: obra gauzatzeko aurrekontuaren %10, gehienez ere. Hauek sartuko dira: Proiektu teknikoaren prestaketa, obretako zuzendaritza fakultatiboa eta eraikinaren ebaluazio txostena, betiere laguntzen eskaera egiten bada aipatu txostenaren data eta hurrengo bost urteetan.

- b) "Zaurgarritasun egoeran daudenentzako aparteko laguntzak" deiturikoetan.

Laguntza eskatzen duen jabeari edo gozamedunari esleitutako obraren kostua, eraikinak birgaitzeko eta hiria berroneratzeko laguntzei buruzko udal-ordenantzaren I. eranskineko 1. dokumentuan ezarritako zenbatekoan.

4. Oinarria. AURREKONTU-KREDITUAK, GEHIENEO ZENBATEKOA ETA DIRULAGUNTZAREN BANAKAKO ZENBATEKOA

4.1.- Kreditu erabilgarrien barruan deitutako gehieneko zenbatekoa

Deialdi honetarako 2026rako guztizko zenbatekoa 75.000,00 eurokoa da, 2026ko aurrekontuko 1 15222 7890000 "Eraikinak birgaitzeko dirulaguntza" partidaren kargura.





4.2.- Banakako zenbatekoa

a) "Laguntza orokorrak" deiturikoetan:

Jarduketa mota guztietan, aurrekontu babesgarria etxebizitzako 1.000 euro baino gehiago izan behar da (BEZa kenduta). Laguntzak honako hauek izanen dira:

1.- Etxebizitzen efizientzia energetikoa eta jasagarritasuna.

1.1.- Eraikinaren inguratzaile termikoa hobetzeko jarduketak. Ehuneko finko bat (%5) lagunduko da diruz, eraikinaren inguratzaile termikoa hobetzeko jarduketetako aurrekontu babesgarriaren gainean. Gehienez ere 700 euro etxebizitza bakoitzeko, 15 etxebizitzako edo gehiagoko erkidegoetan, eta 900 euro 15 etxebizitza baino gutxiagoko erkidegoetan edo familia bakarreko etxebizitzetan, Udal Planean ondare arkitektoniko gisa katalogatutako eraikinen eta monumentu historiko-artistiko deklaraturako eraikinen kasuan.

1.2.- Ordenantzako 4.1.2 eta 4.1.3 apartatuetan zehaztutako instalazioetako jarduketak. %6,5 lagunduko da diruz, aurrekontu babesgarriaren gainean. Gehienez ere 400 euro etxebizitza bakoitzeko, 15 etxebizitzako edo gehiagoko erkidegoetan, eta 500 euro 15 etxebizitza baino gutxiagoko erkidegoetan edo familia bakarreko etxebizitzetan, Udal Planean ondare arkitektoniko gisa katalogatutako eraikinen eta monumentu historiko-artistiko deklaraturako eraikinen kasuan.

Era berean, 4.1.3 atalean jasotako kasuetan, jarduketa gauzatzeko xehetasun-azterlan bat izapidetu behar bada, Udal Planaren Hirigintza Araudiak hala eskatuta, laguntza handitu egingo da, aipaturako xehetasun-azterlan horren administrazio-izapidetzeak dakarren zenbatekoan.

2.- Irisgarritasuna eta segurtasuna erabiltzeko orduan:

2.1.- Irisgarritasun unibertsalerako eta pertsona ororentzako diseinurako jarduketak. Ehuneko finko bat (%5) lagunduko da diruz, aurrekontu babesgarriaren gainean. Gehienez ere 350 euro etxebizitza bakoitzeko, 15 etxebizitzako edo gehiagoko erkidegoetan, eta 450 euro 15 etxebizitza baino gutxiagoko erkidegoetan edo familia bakarreko etxebizitzetan, Udal Planean ondare arkitektoniko gisa katalogatutako eraikinen eta monumentu historiko-artistiko deklaraturako eraikinen kasuan.

Jarduera, eraikin batean igogailua lehen aldiz instalatzea bada, aurrekontu babestuari aplikatutako % 10eko ehuneko diruz lagunduko da, 16.800 €-ko gehieneko zenbatekoarekin.

Jarduketa etxebizitzaren barne-birgaitzeari badagokio, mugikortasun urriko pertsonen erabiltzeko, aurrekontu babestuaren gainean aplikatutako % 15eko dirulaguntza emango da, 4.000 €-ko gehieneko zenbatekoarekin.





Nolanahi ere, ezinbestekoa izango da txosten medikoa aurkeztea, etxebizitzaren onuradunak duen mugikortasun murriztuaren mota eta mailari buruzkoa, eta, nolanahi ere, %40ko desgaitasuna edo handiagoa izan beharko du.

3.- Laguntza bereziak.

Zizur Nagusiko Udalak hitzarmenak egin ditzake ezohiko birgaitze jarduketetan esku hartzeko, ordenantza honetan aurreikusitako laguntzak eta, baita jarduketa horietan izandako parte hartzea ere, baliabide ekonomiko bereziekin konbinatuz edo jartzen dituen baliabide material, tekniko eta humanoekin.

a) “Zaugarritasun egoeran daudenentzako laguntza bereziak” deiturikoetan:

Dagokion laguntzaren ehunekoa zehazteko ondorioetarako, aurkezteko epea eskaeraren datan amaituta dagoen zergaldiko sarrerak (zerga oinarriaren zati orokorra gehi PFEZen aitortpenean tributatzetik salbuetsitako errentak) hartuko dira aintzat 1. DOKUMENTUAN.

Zaugarritasun egoeran daudenentzako laguntza bereziak				
Zaugarritasun egoeran daudenentzako laguntza bereziak <small>Laguntza jabeen erkidegoari ordainduko zaio zuzenean.</small>	Zaugarritasun egoera larria. 1. dokumentua		Zaugarritasun egoera 1. Dokumentua	
	%	Etxebizitzako dirulaguntza/ muga	%	Etxebizitzako dirulaguntza/ Muga
Ingurutzailer energetikoa, oztopoak kentzea eta instalazioak oro har betetzea.	30	5.000,00	15	2.500,00
Ingurutzailer energetikoa eta instalazio orokorrak.	30	2.500,00	15	1.500,00
Instalazio termiko zentralizatuen efizientzia hobetzea, erregulazioa eta kontrola.	30	1.000,00	15	500,00
Energia berriztagarriak txertatzea.	30	1.000,00	15	500,00

5. Oinarria. ONURADUN IZATEKO BALDINTZAK

5.1.- Eskatzaileak edo erakundeak, onuradun izateko, eraikinak birgaitzeko eta hiria berroneratzeko laguntzei buruzko udal-ordenantzaren 5. artikuluan edo I. eranskineko 4. paragrafoan ezarritako betekizunak edo baldintzak bete beharko ditu.





5.2. Betekizun edo baldintza espezifikoak:

a) "Laguntza Orokorrak" deiturikoetan:

1.- Oro har, honako baldintza hauek bete behar dituzte higiezinek Udalaren laguntzak jaso ahal izateko:

1.1.- Etxebizitza kolektiboaren edo familia bakarreko etxebizitzaren (bakartua edo atxikia) tipologietako etxebizitza erabilera izatea edo, bestela, Udal Planean ondare arkitektoniko gisa katalogatuta egotea edo, bestela, monumentu historiko-artistiko deklaratu izatea.

1.2.- Eraikuntzek eta instalazioek 25 urte edo gehiago izatea eta/edo birgaitu beharreko eraikinak EOA-CT-79 araudia indarrean sartu baino lehen eginak izatea (Eraikuntzako Oinarrizko Arauak, eraikinen baldintza termikoei buruzkoak).

1.3. Jarduketa eremurako hirigintzako planeamenduan edo hori garatzen duen araudian ezarritakora egokitzea. "Antolamendutik kanpoko" eraikinetan egin beharreko obrek ezin izanen dituzte birgaitzerako udal laguntzak jaso.

2.- Erkidegoek, inguratzaile energetikoa gauzatzeko, sustatzen dituzten jardueren betekizun bereziak, 5.1 atalean jasotakoez gain:

2.1.- Nafarroako Gobernuaren birgaitze babestuaren behin-behineko kalifikazioaren espedientea lortu izana.

2.2.- Laguntza jasotzeko izaera izateko, jarduketak eraikinaren ebaluazio txostenean zehaztutako obrak aurreikusi behar ditu.

2.3.- Obrek, gutxienez, eraikinen inguratzaile termikoa gauzatzea aurreikustea, eta udal ekimenez sustatutako berroneratze energetikoko proiektuetan edo dagokion esku hartze orokorreko proiektuan zehaztutako zehaztapen teknikoak eta konposiziokoak jasotzea.

b) "Zaugarritasun egoeran daudenentzako laguntza bereziak" deiturikoetan:

Zaugarritasun egoeran daudenentzako laguntza bereziak eskatu ahal izanen dituzte jabeak edo gozamedunak, jabeen erkidego bateko parte izanik ordenantza honen 4. artikuluan deskribatutako jarduketaren bateko kostuetan parte hartzera behartuta daudenak eta, horretan aurreikusitako betekizunak betez, baldintza hauek bete behar dituztenak:

- Modu ohikoan eta iraunkorrean bizi izatea etxebizitzan, eta horretan erroldatuta egotea. Udalari hori ofizioz egiaztatzeko baimena emanen diote.





- Diruz lagunduko denaz bestelako etxebizitza baten jabea ez izatea %25eko edo goragoko koefiziente batean.
- Diruz lagunduko denaz bestelako etxebizitza baten gozameduna ez izatea.
- Udal zergak ordainduta izatea eta ordaindu gabeko inolako zorrik ez izatea Zizur Nagusiko Udalarekin.
- Udalari berariazko baimena ematea (2. DOKUMENTUA) Jabetzaren Erregistroan idatzohar bat egin dezan, adierazteko laguntza honen onuradun izan dela eta laguntza itzultzera behartuta dagoela laguntza ematen denetik 5 urte igaro baino lehen kostu bidezko inter vivos transmisioa edo lagapena egiten bada.

6. Oinarria. PERTSONA EDO ERAKUNDE ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Pertsona eta erakunde onuradunaren betebeharra da dirulaguntza laguntzaren xede den zehatzari ematea.

Jarduketak, laguntza hauetaz gain, bestelako dirulaguntzekin edo baliabideekin finantzatu direnean, justifikazioan diru horien zenbatekoa eta jatorria frogatu beharko dira eta, orobat, funtsak diruz lagundutako jarduketari aplikatu zaizkiola.

Edozein kasutan ere, laguntzak ematen dituen organoak eska dezakeen beste edozein dokumentazio aurkeztu behar da, egindako jarduketak justifikatzeko.

7. Oinarria. ESKABIDEAK AURKEZTEA: EPEAK, LEKUA ETA ESKATUTAKO DOKUMENTAZIOA.

7.1.- Eskabideak aurkezteko lekua

Eskabideak Zizur Nagusiko Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, Hirigintza Arloari zuzenduta, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozeinetan.

7.2.- Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea deialdia, laburbilduta, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hasiko da.

Deialdi honetako dirulaguntzen eskabideak aurkezteko epea 2026ko azaroaren 30ean amaituko da.

7.3.- Eskabideak eta agiriak aurkezteko modua





Ezarritako epean eskabidea epe eta modu egokian aurkezten dutenek, baina guztiz edo partzialki bete ezin direnek, ezin izango dute beste eskaerarik aurkeztu.

Eskabideak eta deialdi honen eranskinak Udalaren webgunean daude eskuragarri: www.zizurmayor.es Eskabideak eredu normalizatuetan aurkeztu beharko dira, oinarri hauetan eskatutako dokumentazioarekin batera.

Zizur Nagusiko Udalak beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarria eskatu ahal izango du aurkeztutako eskabidea behar bezala baloratu eta ebazteko.

ZIZUR NAGUSIKO UDALAREN ERREGISTRO OROKORRA

Erreniega parkea z/g, 31180 Zizur Nagusia (Nafarroa)

☎ 948 18 18 96
☎ 948 18 19 00

7.4.- Aurkeztu beharreko dokumentuak

a) "Laguntza Orokorrak" deiturikoetan:

Hasierako eskabidearekin batera, Ordenantzan zerrendatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten datu hauek aurkeztu beharko dira:

- 1) Obra lizentziaren eskaeraren inprimakia.
- 2) Titularraren izenean dagoen banku kontuaren zenbakia.
- 3) Hala badagokio, Nafarroako Gobernuaren birgaitze babestuaren behin-behineko kalifikazioaren espedientearen frogagarria.
- 4) Proiektuan edo memorian jasotako obrak kontratatzeko hiru aurrekonturen kopia – bakoitza enpresa batena– edo hiru eskaintza/aurrekontu eskatzeko konpromisoa, laguntza kalkulatzeko oinarriaren zenbatekoa 30.000 eurokoa baino handiagoa denean. Eskaintzarik onena hautatzeko balorazio irizpideak azaldu behar dira.
- 5) Jabeen erkidegoei, gainera, hauek eskatuko zaizkie:
 - Jabeen erkidegoaren frogagarria, bertan azalduta jabeak, jabeen erkidegoaren barruko partaidetza koefizientea –banaketa horizontalaren arabera– eta jabe bakoitzari egotzitako obraren kostua.
 - Jabeen erkidegoaren edo entitate kudeatzailearen erabaki baliozkoa, bertan espresuki adierazita obrak egiteko konpromisoa hartzen dutela.
 - Erkidegoaren kontu zenbakia edo izena duen banku erakundearen ziurtagiria. Impreso de solicitud de licencia de obras.

b) "Zaugarritasun egoeran daudenentzako laguntza bereziak" deiturikoetan:





- 1) Laguntza berezia eskatzeko instantzia orokorra, jabeen erkidegoak izapidetutako obra lizentziari erreferentzia eginda.
- 2) Eskatzailearen NANA.
- 3) Erregistroko ohar soila.
- 4) PFEZen azken aitorpena, baita salbuetsitako errenten ziurtagiriak ere.
- 5) Aitortutako desgaitasunaren ziurtagiria. Hala badagokio
- 6) Genero indarkeriaren biktima izatearen froga. Hala badagokio
- 7) Terrorismoaren biktima izatearen froga. Hala badagokio
- 8) Mendekotasun-egoera. Hala badagokio
- 9) Familia liburua edo familia ugariaren txartelaren kopia. Hala badagokio
- 10) Dokumentua sinatuta, Udalari berariazko baimena emateko Jabetzaren Erregistroan idatzohar bat egin dezan, adierazteko laguntza honen onuradun izan dela eta laguntza itzultzeraz behartuta dagoela laguntza ematen denetik 5 urte igaro baino lehen kostu bidezko inter vivos transmisioa edo lagapena egiten bada.
- 11) Honako kontzeptu hauek jasotzen dituen zinpeko aitorpena.
 - *Diruz lagunduko denaz bestelako etxebizitza baten jabea ez izatea % 25eko edo goragoko koefiziente batean.*
 - *Diruz lagunduko denaz bestelako etxebizitza baten gozamenduna ez izatea.*
 - *PFEZen aitortutako diru sarrerez eta aitortutako errenta salbuetsiez (urtean 500 euro baino gehiagokoak) bestelako sarrerarik ez izatea.*
 - *Familia- edo bizikidetzaren unitatearen osaera.*

8. Oinarria. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENEA

8.1.- Prozeduraren instrukzioa

Deialdi hau banakako ebaluazio-erregimenean izapidetuko da; hala, espedienteak eskabideen sarrera-ordenaren arabera izapidetu eta ebatziko dira.

Pertsona edo erakunde eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta baloratu ondoren emango da dirulaguntza.





Ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoituta, instrukzio-organoak egingo du, espedientea ikusita, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko zaio, kontu-hartzailetzaren gastua fiskalizatu ondoren.

Dirulaguntza ematea ebazteko organo eskuduna Alkatetza izango da, dauden eskuordetzeak edo etorkizunean eman daitezkeenak alde batera utzi gabe; kasu horretan, eskuordetze horietan jasotako irismenarekin, eskuordetze horiek ezartzen dituzten organoak izango dira eskudun.

8.2.- Ebazteko eta jakinarazteko epea

Eskaerak obrak gauzatu baino lehen ebatzi ahal izanen dira behin-behinean, eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentazioari jarraikiz. Nolanahi ere, ordainketa ez da eginen udal espedientea behin betiko ebatzi arte, obrak gauzatu izana justifikatu ondoren. Dena dela, Udalak konturako aurrerakinak egin ahal izanen ditu, behar bezala egiaztatutako obra zer-nola gauzatzen den.

Udalaren aurrekontuan baliabide ekonomikoak nahikoak izan behar dira, egokitzen den ekitaldi ekonomikoaren kargura laguntzak eman ahal izateko. Ez balego dagokion ekitaldian eskatutako dirulaguntza osoa ordaintzeko adina aurrekontu gaitasun, partzialki ordainduko litzateke dirulaguntza, eta hurrengo ekitaldian ordainduko litzateke gelditzen den.

Ez balego dagokion ekitaldian dirulaguntza osoa ordaintzeko krediturik, eta, aurreko paragrafoan adierazi bezala, lehen ordainketa partzial bat egin beharko balitz, zaurgarritasun egoeran daudenentzako ezohiko laguntzei emanen zaie lehentasuna.

9

9. Oinarria. LAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA

9.1.- Ordenantza honetan aurreikusitako irizpideen aplikazioak ezarriko du Udalaren laguntza ekonomikoen muga.

9.2.- Udalaren laguntzak Nafarroako Gobernuak horretarako ezarrita dituenen osagarri izanen dira, baita espedientean helburu bererako izaten den beste edozein laguntzaren osagarri ere.

9.3.- Dirulaguntzen zenbatekoa ez da inoiz diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoan izanen, ez bakarrik, ez beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera eta baliabide batzuk gehituta, edozein administrazio, entitate edo pertsonarengandik datozela ere.

9.4.- Proiektu edo jardueraren kostuaren aldean, entitate publikoetatik hartutako dirulaguntza bateragarriak gehiegizkoak direnean, onuradunak gehiegizko zenbatekoa eta berandutze interesak itzuli beharko ditu, ordainketa gutunak gehituta justifikazioari. Laguntza ematen duten entitateei itzuliko zaie gehiegizko zenbatekoa; zenbat eman duen bakoitzak, haren proportzian.

Hala ere, Administrazioa ohartzen bada gehiegizko finantzazio horretaz, gehiegizko zenbatekoa osorik itzultzeko exijituko du, hark emandako dirulaguntzaren mugaraino.





10. Oinarria. LAGUNTZA EKONOMIKOAK ORDAINTZEKO MODUA ETA EPEAK

10.1.- Ezin izanen dira gorantz berrikusi Udalak ematen duen laguntzaren ebazpen espresuan baietsi daitezkeen laguntzen zenbatekoa eta ehunekoa.

Obren azken kostuaren justifikazioa hasiera batean aurkeztutako aurrekontu babesgarria baino txikiagoa bada, beheranzko berrikuspena egingen da.

10.2.- Onuradunak justifikatu beharko du lagundu den jarduketa egin egin dela, hura ordaindu baino lehen, horretarako baldintza izanen baita. Horretarako, honako hauek aurkeztu behar ditu:

10.2.1.- Ordainketa eskatzeko eskabidea

10.2.2.- Obra amaierako ziurtagiri ikus-onetsia, hala behar bada.

10.2.3.- Obren azken kostua frogatzen duten agiriak eta/edo gastua ziurtatzen duten fakturak.

10.2.4.- Gastua egiaztatzen duten fakturen ordainagiriak.

10.2.5.- Jarduerak laguntza honekin ez ezik, beste dirulaguntza edo baliabide batzuekin ere finantzatu badira, justifikazioan egiaztatu beharko da funts horien zenbatekoa, jatorria eta diruz lagundutako jarduerarako aplikazioa.

10.2.6.- Jabeen erkidegoaren frogagiria, bertan azalduta jabeen erkidegoaren barruko partaidetza koefizienteak, banaketa horizontalaren arabekoak. Egindako gastuak eta lortutako diru sarrerak zerrendatuko dira, modu antolatuan eta kontzeptuka sailkatuta.

10.3.- Udaleko zerbitzu teknikoek, lizentziaren gaineko aurrekariak eta espedientean jasotako dokumentazioa aztertuta, obrak ikuskatuko dituzte, dirulaguntzaren xedeari egokitzen zaizkion eta obra lizentziaren arabera egin direla egiaztatzeko, baita eskatutako dokumentazioa zuzen aurkeztu ote den ikusteko ere.

10.4.- Edozein kasutan ere, laguntzak ematen dituen organoak eska dezakeen beste edozein dokumentazio aurkeztu behar da, egindako jarduketak justifikatzeko.

10.5.- Laguntza jaso eta gero ezin izanen da ordenantza honetako laguntzarik berriro eskatu bost urteko epean, salbu eta katalogatutako eraikinen kasuan, horiek birgaitzea bereziki zaila bada. Birgaitzea fasetan egitea onetsi daiteke, eta laguntzak, kasu horretan, fase bakoitzerako emanen dira.





11. Oinarria. LAGUNTZAK GALTZEA

Ordenantza honetako baldintzak eta beharkizunak betetzen ez badira eta aurkeztutako dokumentazioan edozein datu faltsutuz gero, Udalak emandako laguntza guztiak deuseztatuko dira eta espedientean izan daitezkeen onurak bertan behera geldituko; gainera, jasotakoa itzuli beharko da, legezko interesak barne, jaso ziren unetik. Indarra duen legean diru bilketarako ezarritako premiamendu bidez ordainaraz daitezke.

Orobat, aplikatzekoak izanen dira laguntza eta dirulaguntza publikoen onuradunei ezartzen zaizkien betekizun eta erantzukizunak, Aurrekontuei buruzko Lege Orokorraren 81 eta 82. artikuluetan (1091/1988 Legegintzako Errege Dekretua, irailaren 23koa) orokorrean jasotzen direnak, baita dirulaguntza eta laguntza publikoei aplikatzen ahal zaizkien gainerako xedapenak ere.





ESKATZAILEAREN DATUAK / DATOS DE LA PERSONA SOLICITANTE

Izen-Abizenak / Nombre-Apellidos _____ NAN, IFZ, AIZ / DNI, NIF, NIE _____
 Helbidea / Domicilio _____ P.K. / C.P. _____
 Herria / Localidad _____ Tfnoa. / Tfno. _____ Posta elektronikoa / Correo electrónico _____

BERE IZENEAN EN NOMBRE PROPIO edo / o ONDOKO HONEN ORDEZKARI GISA EN REPRESENTACIÓN DE:

Izen-Abizenak / Nombre-Abellidos _____ NAN, IFZ, AIZ, IFK / DNI, NIF, NIE, CIF _____
 Helbidea / Domicilio _____ C.P. / P.K. _____
 Herria / Localidad _____ Tfnoa. / Tfno. _____ Posta elektronikoa / Correo electrónico _____

ADIERAZTEN DU / EXPONE

12

ESKATZEN DU / SOLICITA

ERANTSITAKO AGIRIAK / DOCUMENTOS APORTADOS

Zizur Nagusia, 20____(eko) _____-aren _____(e)an Sinadura / Firma:
 Zizur Mayor, a ____de _____ de 20____

Protección de datos: El Ayuntamiento de Zizur Mayor es el responsable de tratamiento de los datos de carácter personal que se utilizarán con la finalidad de gestionar la tramitación del procedimiento administrativo para el que han sido presentados o solicitados. No se cederán datos a terceros salvo obligación legal. Tiene derecho a acceder, rectificar y suprimir los datos dirigiéndose a las dependencias municipales. Puede consultar el listado de tratamiento de datos y la información adicional y detallada sobre protección de datos en nuestra web: www.zizurmayer.es

Datuen babesa: Prozedura administratiboaren tramitazioa kudeatzeko xedearekin erabiliko diren izaera pertsonaleko datuen tratamenduaren erantzulea Zizur Nagusiko Udala da aurkeztu edo eskatu direnerako. Ez zaizkie hirugarrenei daturik emanen legezko betebeharren bat badago izan ezik. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko edo baliogabetzeko eskubidea duzu udaleko bulegoetara zuzenduz. Datuen tratamenduaren zerrenda eta datuen babeserako informazio gehigarri eta zehatza kontsulta dezakezu gure webgunean: www.zizurnagusia.eus





BAIMENAREN ADIERAZPENA / DECLARACIÓN AUTORIZACIÓN

Izen-Abizenak Nombre-Apellidos	_____		NAN, IFZ, AIZ DNI, NIF, NIE	_____
Helbidea Domicilio	_____		P.K. C.P.	_____
Herria Localidad	Tfnoa. Tfno.	_____	Posta elektronikoa Correo electrónico	_____

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:

- 1) Zizur Nagusiko dagoen etxebizitzaren jabea dela, eraikinak birgaitzeko eta hiri-berroneratzeko laguntzei buruzko udal-ordenantzan aurreikusitako prekariedade-egoerarako laguntza bereziaren onuradun den aldetik.
- 2) Baimena ematen diodala Zizur Nagusiko Udalari behean sinatzen duenari jabeen erkidegoaren banku-kontuan dagokion laguntza ordain dezan:
Kontuaren titularra:
Kontu korrontearen zenbakia:
- 3) 3) Halaber, baimena ematen diodala Zizur Nagusiko Udalari jabetza-erregistroan inskriba dezan eraikinean obrak egiteko udal-laguntza baten onuradun izan delako oharpena, higiezinaren gaineko karga gisa, 5 urterako.
- 4) 4) Esandako laguntza ordaintzen denetik 5 urte igaro baino lehen inter vivos kostu bidez eskualdatzen edo lagatzen bada, laguntza itzultzeko konpromisoa hartzen dut.

DECLARA QUE:

- 1) Es propietario/a de la vivienda sita en, de Zizur Mayor, en su condición de beneficiario de la ayuda especial a situaciones de precariedad contemplada en la ordenanza municipal de ayudas a rehabilitación de edificios y regeneración urbana.
- 2) Autorizo al Ayuntamiento de Zizur Mayor para que abone la ayuda que le corresponde al abajo firmante en la cuenta bancaria de la comunidad de propietarios:
Titular de la cuenta
Nº de la CC:
- 3) Así mismo, Autorizo al Ayuntamiento de Zizur Mayor a inscribir en el registro de la propiedad la anotación de haber sido beneficiario de una ayuda municipal para la realización de obras en el edificio, como carga sobre el inmueble por un plazo de 5 años.
- 4) Me comprometo a devolver dicha ayuda en caso de transmisión o cesión inter vivos a título oneroso antes de los 5 años desde la fecha de abono de dicha ayuda.

Zizur Nagusia, 20____(eko) _____-aren _____(e)an
Zizur Mayor, a ____de _____de 20_____

Sinadura / Firma:

Protección de datos: El Ayuntamiento de Zizur Mayor es el responsable de tratamiento de los datos de carácter personal que se utilizarán con la finalidad de gestionar la tramitación del procedimiento administrativo para el que han sido presentados o solicitados. No se cederán datos a terceros salvo obligación legal. Tiene derecho a acceder, rectificar y suprimir los datos dirigiéndose a las dependencias municipales. Puede consultar el listado de tratamiento de datos y la información adicional y detallada sobre protección de datos en nuestra web: www.zizurmayer.es

Datuen babesa: Prozedura administratiboaren tramitazioa kudeatzeko xedearekin erabiliko diren izaera pertsonaleko datuen tratamenduaren erantzulea Zizur Nagusiko Udala da aurkeztu edo eskatu direnerako. Ez zaizkie hirugarreni daturik emanen legezko betebeharren bat badago izan ezik. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko edo baliogabetzeko eskubidea duzu udaleko bulegoetara zuzenduz. Datuen tratamenduaren zerrenda eta datuen babeserako informazio gehigarri eta zehatza kontsulta dezakezu gure webgunean: www.zizurnagusia.eus





SELLO
Publicado en tablón de anuncios electrónico
17/02/2026



Parque Erreniega Parkea, s/n
31180 ZIZUR MAYOR-ZIZUR NAGUSIA
NAFARROA-NAVARRA
CIF / IFK: P3190700-I
Tel: 948181900
www.zizurmayer.es

ZINPEKO ADIERAZPENA / DECLARACIÓN JURADA

Izen-Abizenak Nombre-Apellidos	_____		NAN, IFZ, AIZ DNI, NIF, NIE	_____
Helbidea Domicilio	_____		P.K. C.P.	_____
Herria Localidad	Tfnoa. Tfno.	_____	Posta elektronikoa Correo electrónico	_____

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:

- Ez duela ohiko bizileku gisa adierazitakoa ez den beste etxebizitza baten % 25eko edo hortik gorako jabetza-titulurik.
- Ez dela diruz laguntzen den etxebizitza ez den beste baten usufruktudun.
- Ez duela jasotzen PFEZean eta errenta salbuetsietan aitortutakoez bestelako diru-sarrerarik, urteko zenbateko erantsia 500 eurotik gorakoa dutenak.
- Familia- edo bizikidetzta-unitatea honako pertsona hauek osatzen dutela:

-

-

-

DECLARA QUE:

- No posee el título de propiedad igual o superior al 25% de otra vivienda distinta de la señalada como residencia habitual.
- No es usufructuario/a de otra vivienda distinta a la que es objeto de subvención.
- No percibe otros ingresos distintos a los declarados en el IRPF y las rentas exentas declaradas, cuya cuantía agregada anual supere los 500 euros.
- Que la unidad familiar o de convivencia está formada por las siguientes personas:

-

-

-

14

Zizur Nagusia, 20 ____ (eko) _____ -aren ____ (e)an
Zizur Mayor, a ____ de _____ de 20 ____

Sinadura / Firma:

Protección de datos: El Ayuntamiento de Zizur Mayor es el responsable de tratamiento de los datos de carácter personal que se utilizarán con la finalidad de gestionar la tramitación del procedimiento administrativo para el que han sido presentados o solicitados. No se cederán datos a terceros salvo obligación legal. Tiene derecho a acceder, rectificar y suprimir los datos dirigiéndose a las dependencias municipales. Puede consultar el listado de tratamiento de datos y la información adicional y detallada sobre protección de datos en nuestra web: www.zizurmayer.es

Datuen babesa: Prozedura administratiboaren tramitazioa kudeatzeko xedearekin erabiliko diren izaera pertsonaleko datuen tratamenduaren erantzulea Zizur Nagusiko Udala da aurkeztu edo eskatu direnerako. Ez zaizkie hirugarrenei daturik emanen legezko betebeharren bat badago izan ezik. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko edo baliogabetzeko eskubidea duzu udaleko bulegoetara zuzenduz. Datuen tratamenduaren zerrenda eta datuen babeserako informazio gehigarri eta zehatza kontsulta dezakezu gure webgunean: www.zizurnagusia.eus



ZIZUR MAYOR / ZIZUR NAGUSIA

Código Seguro de Verificación: DFCA AJRY TMH7 VK9Y FVAF

Deialdia 2026

La comprobación de la autenticidad de este documento y otra información está disponible en <https://sedeelectronica.zizurmayer.es/>

Pág. 14 de 14